

**2017ko URTARRILAREN 26an UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIKO
OSOKO BILKURAREN AKTA** **1 zk.**

Zarauzko udaletxeko batzar-aretoan, 2017ko urtarrilaren 26an, iluntzeko zazpietan, Udalbatzarra bildu da, egun eta ordu horietarako aurretik deituta zegoen ohiko bilkura egiteko xedez.

Honako zinegotzi hauek bertaratu dira:

Batzarburua	Xabier Txurruka Fernandez jn.
Bertaratutako zinegotziak	Maite Garrastazu and. Jesus Arana Gomez jn. Nekane Iribar Iriondo and. Ixidor Larrañaga Ayerbe jn. Iban San Martin Hernandez jn. Miren Letamendia Belloso and. Jon Andoni Urdangarin Urrutia jn. Iratxe Zorrozuza Eguiazabal and. Koldo Uribarri Zenekorta jn. Mikel Goenaga Gubia jn. Naiara Carvajal Larrañaga and. Iñaki Eizagirre Eizagirre jn. Karmele Alberdi Linazasoro and. Xabier Vazquez Izquierdo jn. Gloria Vazquez Herranz and. Pablo Garcia Astrain jn. Ana De Benito Sanz and. Oihane Delgado Pita and.
Ez dira etorri	Aitor Korta Etxabe jn. Ane Arruti Lopetegi and.
Idazkaria	Ines Diaz de Villafranca Arzamendi and.
Kontu-hartzailea	Lioba Maiza Rekondo and.

Bilkurari hasiera emanda, eguneko aztergaiak aztertu eta eztabaidatu ditu Udalbatzarrak.

Osoko bilkura honetan egindako bozketa guztietan kontuan hartu da EH BILDU udal taldeko zinegotzi Ane Arruti andreak bere botoa eskuordetzan utzi ziola bere taldearen bozeramaile Mikel Goenaga jaunari; eta hori, apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, 25.6 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

GAI-ZERRENDA

1.- 2016ko ABENDUAREN 29ko BILKURAREN AKTA ONARTZEA.

Aho batez onartu dute, zuzenketarik gabe.

2.- 2017ko URTARRILAREN 3ko BILKURAREN AKTA ONARTZEA (2016ko ABENDUAREN 29ko JARRAIPENA).

Aho batez onartu dute, zuzenketarik gabe.

3.- ALKATETZAREN DEKRETUEN KONTROLA: 2016ko ABENDUAREN 26tik 2017ko URTARRILAREN 20ra

Segidan, Alkatezak 2016ko abenduaren 26tik 2017ko urtarrilaren 20ra erabakitako dekretuen berri izan du Udalbatzak.

4.- TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN ERABAKIEN KONTROLA: 2016ko ABENDUAREN 26tik 2017ko URTARRILAREN 16ra

Era berean, Tokiko Gobernu Batzarrak 2016ko abenduaren 26tik 2017ko urtarrilaren 16ra hartutako erabakien berri izan du Udalbatzak.

5.- INFORMAZIOA FINANTZA ETA AURREKONTUEI BURUZ: 2016ko 4. HIRUHILEKOA

Udalbatzarrak jakin berri du 2016ko laugarren hiruhileko finantza eta aurrekontuei buruzko informazioa, alkate jaunak aurkeztu duena, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, xedatutakoaren arabera.

6.- INFORMAZIOA ORDAINKETAKO BATEZ BESTEKO EPEARI BURUZ: 2016ko 4. HIRUHILEKOA

Hurrena, Udalbatzarrari jakitera eman zaio 2016ko laugarren hiruhileko ordainketako batez besteko epeari buruzko informazioa, alkate jaunak aurkeztu duena,

abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, xedatutakoaren arabera.

7.- ZARAUZKO UDALERRIKO BIDE PUBLIKO JAKINETAN IBILGAILUEN APARKAMENDUA ARAUTZEKO ORDENANTZAREN (TAO) ALDAKETA. HASIERAKO ONESPENA

2013 I 133 0001 espedientea

Akordio-zirriborrea irakurri ostean, proposamena eztabaidatu eta bozkatu dute. Bozketak emaitza hau izan du:

Aldeko botoak:	12	(10 EAJ-PNV, 2 PSE-EE)
Kontrako botoak:	8	(6 EH Bildu, 2 Irabazi Zarautz)
Abstentzioak:	–	

Ondorioz, adierazitako gehiengoarekin, Udalbatzarrak erabaki hau hartu du:

“2016ko ekainaren 30ean egindako osoko bilkuran, Zarauzko Udalbatzarrak onartu zuen, behin betiko, ZARAUZKO UDALERRIKO BIDE PUBLIKO JAKINETAN IBILGAILUEN APARKAMENDUA ARAUTZEKO ORDENANTZAREN (TAO) ALDAKETA.

2016. urtean jasotako eskaerak eta iradokizunak oinarri hartuta, egoki ikusi da ordenantzaren testuan hainbat alderdi sartzeari edo argitzea.

Herritarren arloko informazio-batzordeak 2017ko urtarrilaren 12an eta 19an egindako bileretan aztertu zituen aldaketa horiek.

Lurraldeko informazio-batzordeak aurkeztutako proposamena ikusita, Udalbatzarrak, botoen gehiengoarekin,

ERABAKI DU

Lehena.- ZARAUZKO UDALERRIKO BIDE PUBLIKO JAKINETAN IBILGAILUEN APARKAMENDUA ARAUTZEKO ORDENANTZAREN (TAO) ALDAKETARI, zehazten den moduan:

- Aldaketak sartu dira: 3, 4, 6, 10, 10 Bis, 13 eta 14. artikuluetan eta I. eranskinean – “TAO ordenantzak araututako zonak” –.
- Xedapen Iragakorra kendu da.

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean jartzea, 30 eguneko epean, interesdunek erreklamazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzaten. Jendaurreko informazio-izapidea jakitera emango da udaletxeko iragarki-taulan zein web-orrian jarriko den eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko den iragarkiaren bidez.

Hirugarrena.- Erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu ezean, ordenantzaren aldaketa behin betiko onartutzat hartuko da, berariazko erabakirik hartu behar izan gabe. Dena den, indarrean sartzeko, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean aldaketaren testu osoa argitaratu beharko da.”

IDAZKERA BERRIA

3. artikulua. Ordainketa

Araututako aparkaleku moduan behar bezala seinaleztatutako leku edo bide publikoan aparkatzen bada ibilgailua, ordaindu egin beharko da, erabiltzaileak hala eskatzen ez badu ere.

Aparkaldi arautuko gunean aparkatzeko, baimena eskuratu beharko da, horretarako ezarritako sistema erabilia eta dagokion tasa ordaindu ondoren. Baimen horrekin batera aparkatzeko txartel bat emango da, edo ez.

~~“Aparkatzeko baimenarekin batera aparkatzeko txartela ematen den kasuetan, ibilgailuaren aurreko kristalaren barnealdean ezarri beharko da txartela, kanpotik erraz irakurri ahal izateko moduan,~~

.../...

4. artikulua. Funtzionatzeko denboraldiak eta ordutegiak

Bi denboraldi bereizten dira:

1. Udaldia (**ekainaren 1etik irailaren 30era**, biak barne).
2. Urteko gainerako egunak.

Zirkulazio-baimena Zarautzen duten ibilgailuek dohainik aparkatu ahalko dute araubide arrunteko gune guztietan, 13:00etatik 16:30era. Hori egiteko, aparkatzeko txartela behar bada, dagokion tiketa atera beharko da.

Udalerrri osoan egoiliarrentzat gordetako guneak indarrean egongo dira eguneko 24 ordutan eta asteko 7 egunetan.

Aparkaldi arautuak ordutegi hauek izango ditu:

– UDALDIA:

Udaldian, astelehenetik igandera, 09:00etatik 20:00etara.

Igande eta jaiegunetan, **aparkamendu arautuko gune normal bezala arautuko dira** errotazio handiko zonak, ondorio guztietarako, **eta ez errotazio handiko zona bezala.**

– URTEKO GAINERAKO EGUNAK:

Urteko gainerako egunetan, hauek egongo dira indarrean udalerrri osoan: errotazio handiko zonak, egoiliarrentzat gordetako zonak **eta 1 zonako aparkamendu arautuko gune normalak.**

Errotazio handiko guneetako ordutegia honakoa izango da: **09:00etatik 20:00etara** eta 09:00etatik 13:00etara larunbatetan.

.../...

6. artikulua. Araubide bereziko aparkalekuak

Zerbitzua arautzeko, aparkaleku-araubide bereziko ondorengo zonak ezarri dira, eta honakoen arabera arautuko dira:

1. Egoiliarrentzat gordetako zonak:

Dagokion zonan bizi diren pertsonen ibilgailuak soilik aparkatzeko izango dira horrela seinaleztatutako guneak, betiere, 7, 8, 9, 10, 11 edo 12. artikuluetan araututako aparkaleku-bereizgarrien bat baldin badute.

1 zonako bereizgarria duten ibilgailuek Salberdin izenarekin ezagutzen den aparkalekuan aparkatu ahaliko dute, azken zona horretan bizi direnen eskubide berdinekin.

6 zonako bereizgarria duten ibilgailuek 5 zonan ere aparkatu ahaliko dute, azken zona horretan bizi direnen eskubide berdinekin.

Egoiliar txartela duen ibilgailu orok beste edozein gunetan egoiliarrentzat gordetako zonetan aparkatu ahaliko du, gehienez ordubetez eguneko, eta urteko edozein garaitan. Baimendutako denbora ezingo da, inolaz ere, luzatu edo zatitu. Jartzen den sistemak hala eskatzen badu, dagokion txartela atera beharko da.

2. Errotazio handiko zonak:

Aparkaldia gehienez 90 minutukoa izango da ibilgailu guztientzat. Denbora hori igaro ondoren 16. artikuluan aurreikusitako neurriak aplikatuko dira.

Foruen kaleko errotazio handiko zonan, 15 minutukoa izango gehienez aparkaldia.

.../...

10. artikulua. Etxebizitzen jabe edo errentari direnen bereizgarria

Udaldian Herrira etortzen diren pertsonen euren etxebizitza (jabetzakoa edo alokatua) aparkaleku-zerbitzu arautua duen ingururen batean badute, zona arautuan aparkatzeko baimena emango dien bereizgarria lortu ahal izango dute, tiketa erosi beharrik gabe eta aparkatzeko denbora mugarik gabe.

Bereizgarri hori une horretan indarrean dauden ordenantza fiskalen arabera baimendu daitekeen ibilgailu kopururako izango da. Bereizgarri hori emateko, 15 egun baino gehiago pasatu behar dira herrian.

Bereizgarri hori lortu nahi duten pertsonen ondorengo baldintzak bete beharko dituzte:

- a) Araututako zonaren mugapean inskribatuta dagoen etxebizitza baten jabe edo errentari izatea
- b) Ibilgailuaren jabe izatea. Probintziako Trafiko Buruzagitzak emandako zirkulazioko baimenean agertzen den pertsona hartuko da ibilgailuaren jabetzat.

Bestalde, ibilgailuaren jabe izan gabe ere lor daiteke, baldin eskatzailea udako bereizgarria behar duen ibilgailuaren asegurua hartzailea bada.
- c) Udalak jarritako trafiko isunik izanez gero, hori ordainduta izatea.

d) Dagokion Ordenantza Fiskalean jarritako tarifa ordaintzea.

Ez zaie **artikulu honetan aurreikusitako** bereizgarria emango TAO zonan aparkatzeko baimena duten ibilgailuen titularrekin batera herriko etxebizitzetan udaldia pasatzen duten pertsonen.

Eskaera, etxebizitzaren jabeak egin beharko du.

10 bis artikulua. Egoiliar ez diren langile eta autonomoen aparteko bereizgarria.

Herrian erroldatuta ez daudenek baina bertan lan egiten dutenek uda partean aparkatzeko bereizgarria eskatzeko aukera izango dute.

Hilabeterokoa izango da, eta ezingo da zatitu.

Bereizgarriak zona bakarrerako balioko du; eskatzaileak zehaztuko du lekua..

1 Zonako eskatzaileek Herrikosoro kalean **eta Salberdinen** bakarrik izango dute aparkatzeko aukera.

.../...

13. artikulua. Bereizgarria eskatzea

Ordenantza honetan definitutako bereizgarriak lortu nahi dituztenek egiaztatu beharko dute eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela, eta agiri hauek aurkeztuko dituzte:

1. Udalak horretarako jarritako eskaera-inprimakia.
2. NANen fotokopia edo nortasuna egiaztatzeko beste edozein agiri. Pertsona juridikoa denean Identifikazio Fiskaleko Kodea.

3. Ibilgailuaren zirkulazioko baimenaren fotokopia.
4. Dagokion Ordenantza Fiskalean ezarritako tarifaren diru-sarrera egin izanaren ziurtagiria.
5. **Etxebizitzaren jabe edo errentarientzako** bereizgarria lortzeko: herri-kontribuzioaren ordainagiria edo behar bezala baimendutako alokairuaren kontratua (Foru Ogasunak ikus-onetsia).
6. Jarduera ekonomikoetarako bereizgarria lortzeko: titularrak justifikatu beharko du bere jarduera ekonomikorako etengabe erabili behar duela ibilgailua.
7. Enpresaren ibilgailua euren zerbitzura duten gidariek egiaztatu beharko dute, batetik, ibilgailuaren enpresa titularren eta eskatzailearen artean laneko harremana dagoela, eta bestetik, enpresak baimena eman diola pertsona horri ibilgailua berak esklusiboki erabiltzeko, bai lanorduetan bai lanorduetatik kanpo.
8. Mugikortasun urriko ibilgailuen titularrek, berriz, agiri bidez frogatu beharko dute zirkunstantzia hori.
9. **Garajea araututako guneren batean jabetzan edo errentan daukaten egoiliarrek ez badute bereizgarririk eskatzen, TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALEAN jarritako hoberia izango dute, halakorik balego. Hoberia eskatu egin beharko da, eta agiri bidez frogatu.**

.../...

14. artikulua. Bereizgarriaren erabilera eta indarraldia

Ordenantza honetan definitutako bereizgarrien onuradunek beren zonako **edo sektoreko** toki libreetan denbora mugarik gabe aparkatu ahal izango dute, errotazio handiko zonetan eta bisitarien zatitako zonetan izan ezik.

Xedapen iragankorra:

[Salbuespen gisa, ordenantza honetako 10. artikuluan aurreikusitako udaldiko bereizgarria baliagarria izango da 2016 urtean zehar, 2016ko abenduaren 31 arte.](#)

I. eranskina: TAO ordenantzak araututako zonak

8.- TALAIMENDI EREMUAREN 19-2 AREAKO –OD SANTAITURRIETA – ZATI BATEN HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN BEREZIA (lehengo Arau Subsidiarioen 25-5 areako 12. partzela). BEHIN BETIKO ONESPENA.

2016 H 700 0012 espedientea

Segidan, aztergai honi dagokion akordio-zirriborroa irakurri du idazkari andreak. Amaieran, proposamena eztabaidatu eta bozkatu dute. Hona hemen emaitza:

Aldeko botoak:	12	(10 EAJ-PNV, 2 PSE-EE)
Kontrako botoak:	2	(2 Irabazi Zarautz)
Abstentzioak:	6	(6 EH Bildu)

Horrela bada, adierazitako gehiengoarekin, Udalbatzarrak honako hau erabaki du:

“2016ko irailaren 26an egindako bileran, Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki zuen hasierako onespena ematea, hainbat baldintzarekin, Talaimendi eremuaren 19-2 areako –OD SANTAITURRIETA – zati baten hiri antolamenduko plan bereziari (lehengo Arau Subsidiarioen 25-5 areako 12. partzelari dagokiona).

Inmobiliaria Orio Txoko Txiki SL sozietateak sustatu zuen espedientea. Planaren xedea da, aipatu den partzela horretan egin gabe dauden eraikinen tipologia aldatzea; hau da, familia bakarreko etxe isolatuak egin beharrean (3 eraikin), 8 etxebizitzako bloke tipologiako eraikin bakarra egitea.

Espedientea jendaurrean egon zen epean ez zen alegaziorik aurkeztu.

Udal Plangintzako Aholku Batzordeari espedientearen berri eman zitzaion.

Sustatzaileak plan bereziaren testu bategina aurkeztu zuen behin betiko onespena lortzeko. Hirigintza eta Ingurumeneko Departamentuak aldeko txostena egin zuen. Espedientea Lurraldeko informazio-batzordean eztabaidatu zen.

Espedientea aztertu eta eztabaidatu ondoren, 12 zinegotziren aldeko botoarekin eta, beraz, legezko gehiengo osoaren quorum-arekin, Udaltzarrak

ERABAKI DU

Lehenengoa.- Behin betiko onespena ematea Talaimendi eremuaren 19-2 areako -OD Santaiturrieta- zati baten hiri antolamenduko plan bereziari (lehenengo Arau Subsidiarioen 25-5 areako 12. partzela).

Inmobiliaria Orio Txoko Txiki SL sozietateak sustatu du plana. Onartu den dokumentua 2016ko azaroaren 30ekoa da; Eduardo Yeregui arkitektoak eta Teodoro Cacho abokatuak sinatu dute.

Bigarrena.- Onartutako dokumentua Foru Aldundiaren hirigintzako plangintzaren erregistro administratibora bidaltzea. Horren ondoren, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira behin betiko akordioaren testu osoa eta ordenantzak. Halaber, behin betiko onespeneko akordioa lurralde historikoan gehien zabaltzen den egunkarian argitaratuko da.”

9.- ZARAUZKO MARIA ETXETXIKI ZENTROAREN ERABILERA ETA KUDEAKETA OSOA KONTRATATZEKO LEHIAKETAREN KLAUSULA-AGIRIAK ONARTZEA ETA DEIALDIA EGITEA

2016 I 120 0023 espedientea

Akordio-zirriborroa irakurri eta udal taldeek beren jarrera azaldu ondoren, aho batez, erabaki hau hartu du Udaltzarrak:

“Kontratuaren gaia da MARIA ETXETXIKI ZENTROAREN ERABILERA ETA KUDEAKETA OSOA esleitzea, Administrazio-klausulen Agiriak eta Baldintza Teknikoen Agiriak xedatutakoaren arabera. Maria Etxetxiki zentroa Zarautzen dago, Gipuzkoa kalea 48an.

Kontratuak hiru (3) urteko iraupena izango du, formalizatzen denetik kontaktzen hasita. Hala ere, kontratua urtez urte luzatu ahal izango da, baina iraupen osoa, luzapen eta guzti, gehienez ere sei (6) urtekoa izango da.

Ikusita kontratazio horretarako Administrazio-klausulen Agiriak eta Baldintza Teknikoen Agiriak, bai eta Herritarren arloko informazio-batzordeak emandako irizpena ere, Udalbatzarrak aho batez,

ERABAKI DU

Lehenena.- MARIA ETXETXIKI ZENTROAREN ERABILERA ETA KUDEAKETA OSOA kontratatzeko Administrazio-klausulen Agiria eta Baldintza Teknikoen Agiria onartzea. Maria Etxetxiki zentroa Zarautzen dago, Gipuzkoa kalea 48an.

Bigarrenena.- Deialdia egitea, kontratu hori prozedura ireki bidez esleitzeko, prezio hauetan:

EGUNEKO ZENTROA

Lanegunak

Asistentzia-modulua, eguneko	44,44 euro BEZ barne	(42,73 € + 1,71 € BEZ)
Garraioa, eguneko	15,16 euro BEZ barne	(14,58 € + 0,58 € BEZ)

Jaiegunak

Asistentzia-modulua, eguneko	51,38 euro BEZ barne	(49,40 € + 1,98 € BEZ)
Garraioa, eguneko	17,43 euro BEZ barne	(16,76 € + 0,67 € BEZ)

BIZILEKUAK

Adinekoentzako eta desgaitasuna duten pertsonentzako babespeko apartamentuak

Plazaren kostua, pertsonako eta eguneko:	23,82 euro BEZ barne	(22,90 € + 0,92 € BEZ)
Partekatutako apartamentuko plazaren kostua, pertsonako eta eguneko:	18,88 euro BEZ barne	(18,15 € + 0,73 € BEZ)

Gizarte larrialdietako apartamentuak

Apartamentuaren kostua, eguneko:	23,82 euro BEZ barne	(22,90 € + 0,92 € BEZ)
----------------------------------	----------------------	------------------------

ZERBITZU OSAGARRIAK

Eguneroko ekintzetarako laguntza pertsonalerako zerbitzua

Lanegunez, orduko:	18,99 euro BEZ barne	(18,26 € + 0,73 € BEZ)
Jaiegunez, orduko:	22,93 euro BEZ barne	(22,05 € + 0,88 € BEZ)

Hirugarrenena.- Kontratuaren prezioa ordaintzeko behar beste diru jarri da aurtengo udal aurrekontuan, partida hauetan: 1 0506 227 03 231 20 eta 1 0507 227 01 231 40.

Halaber, zerbitzu honek eragindako hurrengo ekitaldietako aurrekontuetan ere behar adina kreditu jartzeko konpromisoa hartu du Udalak.

Laugarrena.- Tokiko Gobernu Batzarraren esku uztea kontratua esleitzeko erabakia, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 22.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Bosgarrena.- Kontratazio-espeditentean nahitaezkoak diren gainerako izapideak betetzea, eta lizitazioa Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean, Estatuko Aldizkari Ofizialean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta kontratatzailearen profileen argitaratzea.”

10.- GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEK ONARTUTAKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALAREKIN BAT EGITEA: CHRYSALLIS EUSKAL HERRIAREN KANPAINAREN AURKAKO ERASOAK DIRELA ETA

2017 O 001 0001 espeditentea

Segidan, Gipuzkoako Batzar Nagusiek onartutako eta Zarauzko Udaltzarak bere egin duen adierazpen instituzionala irakurri du **alkate** jaunak. Honela dio:

ADIERAZPEN INSTITUZIONALA CHRYSALLIS EUSKAL HERRIAREN KANPAINAREN AURKAKO ERASOAK DIRELA ETA

Errealitate oso zehatz baten inguruan lan egiten duen guraso elkarte txiki bat da Chrysallis: transexualitate egoeran dauden adin txikikoen errealitatea, beren beharretan laguntza emanez eta maitatuz. Aipatutako elkartean sentsibiltate politiko eta erlijioso guztietako familiak daude, beren seme-alaben zorionaren aldeko ahaleginean elkartuta.

Zarauzko Udalak oinarrizkotzat jotzen du errealitate hori azaltzea gizarteak ezagutu dezan eta horrela, begirunez eta laguntza emanez joka dezan. Horixe da martxan jarritako kanpainaren helburua, “Badira zakila duten neskak eta bulba duten mutilak. Horrelaxe da!” goiburuaz: hitz egitea, elkarriketa izatea eta gero eta gehiago ezagutzea, errespetua, azterketa eta zientziaren zehaztasuna medio.

Kanpaina hori azkenaldian jasaten ari den eraso onartezinak direla eta, Zarauzko Udalak babesa adierazten dio Chrysallis Euskal Herria elkarteari hala nola adin txikikoen transexualitatea azaltzeko egin duen kanpainari. Azkenik, Zarauzko Udalak irmo baztertzen ditu aipatutako kanpainak jasandako erasoak, hala nola transfobiak, homofobiak eta lesbofobiak erakusten duten indarkeria.

11.- PSE-EE UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENA:

– Podiumetik azafatak kentzeko mozioa

2017 O 001 0002 espedientea

Segidan, PSE-EE udal taldeak aurkeztutako proposamena irakurri dute, EAJ-PNV taldeak egindako elkarpenak sartuta. Hona hemen testua:

AZAFATAK PODIUMETIK KENTZEKO MOZIOA

ZIOEN AZALPENA

Australiako “Tour Down Under” munduko txirrindularitzako eliteko lehen proba izan da podiumetik emakumeak kentzen lehena. Antolakuntzak erabaki hori hartu du, aurrerantzean, kirol honetan emakumearen irudia objektu modura bultzatzen ez jarraitzeko eta emakumea “gauzatat hartzeari” uzteko. Gure ustez, erabaki horrekin oso urrats garrantzitsua eman da, eta emakumearen irudiaren erabilera sexista egiten den kirol guztietan horren beharrezkoa dugun debaterako bidea ireki da.

Emakumearen irudia erabiltzearen aurkako borrokan, txirrindularitzaren mundua lehena izatea azpimarratzeko modukoa iruditzen zaigu; asko esaten du kirol horren alde. Aldi berean, ekintza horrek behartu egiten gaitu bai erakundeak, bai gizartea orokorrean, kirolarekin lotutako emakume objektuaren irudia lehenbailehen desagerraraztera. Azken urteotan, eliteko kiroletan nabarmen egin du gora emakume kirolarien presentziak, hortxe dabilta borroka batean gizonezko kirolarien parean egoteko. Eta lan bikain horri lagundu egin behar zaio emakumearen edozein irudi sexista baztertuta.

PSE-EEen uste dugu, biolentzia matxistarekin bukatzeko, ezinbestekoa dela kentzea, besteak beste, estereotipo sexistak bultzatu eta emakumearen irudiarentzat kaltegarriak diren ekintza, mezuak, irudiak, publizitate guzti-guztiak, batez ere, komunikabideen bitartez zabalkunde handia izaten duten ekitaldietan, kirol ekitaldietan, esate baterako.

Australiako txirrindularitza froga horrek hasitako bideari jarraituz, eta txirrindularitzak Euskadin daukan errotzea oso handia izanik –horren adibide garbia da Euskal Herriko itzulia, Zarauzko Udaleko PSE-EE udal taldeak honako mozioa aurkezten dio Udalbatzarrari onartua izan dadin:

MOZIOA

1. Zarauzko Udalak eskatu egiten die Euskal Herriko Itzulia antolatzen duten erakundeei, hots, “ORGANIZACIONES CICLISTAS EUSKADI” erakundeari, podiumetik azafatak ken ditzala 2017ko edizioan.
2. Eusko Jaurlaritzari ere eskatzen dio, eskura dituen bitarteko guztiak erabilita, ELKARTE horri eska diezaiola eskakizun hau onartzeko.

3. Ezinbestekoa iruditzen zaigu eliteko kirolean, eta zehatzago esanda txirrindularitzan, emakumezkoen parte-hartzea handitzea. Horregatik eskatzen dugu balora dezatela “Euskal Herriko Itzuli” femenino bat antolatzeko aukera.

4. Eta eskaera hori beste edozein txirrindularitza-frogatara zabaltzen dugu, eta gainera, Eusko Legebiltzarrari eskatzen diogu azter dezatela nolako erabilera matxista egiten den kirol guztietan, eta bereziki, erabilera matxista hori oso nabarmena den kirolean, adibidez, motoziklismoan, automobilismoan eta abar. Helburua da ohitura horiek baztertzea.

5. Mozio honen berri ematea Euskadiko Txirrindularitza Federazioari, Eusko Jaurlearitzari eta Eusko Jaurlearitzako Kirol Kontseiluari.

Udal taldeek beren iritzia eman ostean, proposamena bozkatzeari ekin diote. Hona hemen emaitza:

Aldeko botoak:	20	(9 EAJ-PNV, 7 EH Bildu, 2 PSE-EE, 2 Irabazi-Zarautz)
Kontrako botoak:	–	
Abstentzioak:	–	

Horrenbestez, Udalbatzarrak ERABAKI DU, aho batez, transkribatutako mozioa onartzea.

12.- ESKARI-GALDERAK

Gai-zerrendako puntu honetan gai hauek izan dituzte hizpide:

- ELAren idatzi bat: kiroldegian grebarako deialdi bati buruzko aurretiazkoa notifikazioa.
- Kontratu batzuei buruzko txostena,

EGUNEKO GAI-ZERRENDATIK AT

Eskari-galderen txanda amaituta, PSE-EE udal taldeak eskatu du beste gai bat aztertzea: Garcia jaunak karguari egindako ukoari buruzkoa, hain zuzen.

Nolanahi ere, gai-zerrendan sartuta ez zegoenez, aldez aurretik presa aitortzeko bozketa egin dute eta, aho batez, bertan dauden guztiak horren alde agertu dira.

Horrenbestez, bilkuran dauden guztiak aho batez presa duela adierazi ondoren, EGUNEKO GAI-ZERRENDATIK KANPORA gai hau aztertu dute:

– ZINEGOTZI KARGUARI UKO EGITEA

2017 O 020 0001 espedientea

2017ko urtarrilaren 25eko idatziaren bidez (udaletxeko sarrera-erregistroan 950 zk.), PSE-EE udal talde politikoko zinegotzi PABLO GARCIA ASTRAIN jaunak uko egin dio Zarauzko Udaleko zinegotzi karguari.

Horrenbestez, Udalbatzarrak

ERABAKI DU

Lehena.- PABLO GARCIA ASTRAIN jaunak, PARTIDO SOCIALISTA DE EUSKADI-EUSKADIKO EZKERRA (PSOE) (PSE-EE (PSOE)) hautagai-zerrendakoa denak, zinegotzi karguari egindako ukoaren berri formala hartzea.

Bigarrena.- Akordio honen ziurtagiria eta adierazitako zinegotziak egindako ukoaren kopia Hauteskunde Batzorde Nagusiari bidaltzea, hark bidezko egiaztagiria egin dezan kargua utzi duen zinegotzia ordezkatu ahal izateko.

Eta aztertzeko besterik ezean, batzarburu jaunak hala aginduta, osoko bilkurari amaiera eman diote, gaueko bederatzi eta erdietan, eta nik, idazkariak, horren guztiaren fede ematen dut.